



Deseskalatzeak argi izpi bat jarri du tunelaren amaieran

Maiatzean ere oso nabariak izan dira osasun alertaren ondorioak eta jarduera ekonomikorako ezarri diren mugak. Hala eta guztiz ere, adierazle aurreratutzat jotzen direnetako batzuek aldatu egin dute haien bilakaeraren norabidea. Kasurik deigarriena PMI konposatuena da. Zehatz-mehatz adierazita, **euroaren eremuan, adierazle hori apirilean jaso zuen 13,6 baliotik maiatzeko 30,5era igaro da**. Datu hori oraindik ere oso negatiboa da, eta Atzeraldi Handiko unerik txarrean erregistratutako hura (36,2 2009ko otsailean) baino are okerragoa da, baina, zalantzarik gabe, aurrerapena da apirilean bizi izan zen paralsiarekin alderatuta. Hobekuntza bi osagai nagusietan bizi izan zen. Alde batetik, zerbitzuen sektorearen adierazlea apirileko 12,0tik maiatzeko 28,7ra igaro da, eta manufaktuera, berriz, 18,1etik 35,4ra. Jarduerari pixkanaka itzuli izana da hobekuntza horren atzean dagoen arrazoi nagusia. Txina jarraitu beharreko ekonomia da, pandemia gainerako herrialdeak baino lehenago sufritu zuelako, eta susperraldia ere lehenago gertatuko delako bertan. Ildo horretan, itxaropentsua da bere PMI manufaktura indizeak maiatzean 50eko balioa gainditu izana, hazkunde eremua markatzen duen langa baita.

Europako Batzordeak beste estatistika bat argitaratzen du, uneotan interes handia duena: enpleguari buruzko igurikimenak. Sentimendu ekonomikoan bezala, apirilean serie historikoko daturik txarrena jaso zen bai Europar Batasunean, bai euroaren eremuan eta baita herrialde askotan ere. **Eta maiatzeko susperraldia garrantzitsua izan da**. Adibidez, indize hori 59,6tik 70,9ra igo da Europar Batasunean, eta 64,7tik 78,0ra Espainian. Oso datu negatiboak izaten jarraitzen dute, eta 100 balioa berreskuratzea kostatuko da, baina lehen aurrerapausoa da.

Aipatutakoen ildotik doan beste adierazle bat Alemaniako Ifo indizea da, apirilean 74,2ko balioa izatetik maiatzean 79,5ekoa izatera igaro baita. Beraz, hobekuntza txiki bat da. **Hain ezkorra ez den datu hori etorkizunari buruzko igurikimenetan oinarritzen da soil-soilik**, 69,4tik 80,1era igaro baitira, aurrerapen esanguratsua baita. Aitzitik, egoerari buruzko pertzepzioa jasotzen duen adierazleak okerrera egin du pixka bat, 79,4tik 78,9ra jaitsita.

EAEko ekonomiari dagokionez, ezagutzen ari diren koiunturako datuak jarduera bertan behera utzi izanak gehien kaltetutako hilabetei dagozkie, eta, beraz, oso negatiboak dira. Hala eta guztiz ere, Gizarte Segurantzako afiliazioak eta maiatzean erregistratutako langabeziak pentsarazten dute **deseskalatzearen hasiera lan merkatuaren okertzea leuntzen ari dela, oraindik oso gutxi leundu bada ere**. Egia da maiatzean afiliazioaren urte arteko aldakuntza tasa -%2,3 izan dela, eta -%2,9koa, berriz, serietik kentzen bada zaintzaile ez-profesionalen eragina, baina egia da, halaber, apirilean 18.400 afiliazio galdu ziren bitartean, maiatzean 2.100 baino ez zirela galdu. Orobat, azken hilabete horretan lehen sektorean eta eraikuntzan afiliazioa zertxobait handitu zen apirilarekin alderatuta. Modu simetrikotan, erregistratutako langabeziaren igoera oso handia izan zen urte arteko tasan (%24,5), eta ia 28.000 pertsonari eragin zien, baina apiriletik maiatzerara 3.100 pertsonatan baino ez zen igo, martxoan eta apirilean 10.000 pertsonatan baino gehiago igo zen bitartean. Beraz, argi izpi bat ikus daiteke tunelaren amaieran.